

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2468

AGINDUA, 2013ko apirilaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideen kargugabetzea eta izendapena xedatzen dituena.

Urriaren 28ko 13/1988 legeak, Euskadiko Eskola Kontseiluenak, 10. eta 12. artikuluetan, aurreko legea garatzeko martxoaren 7ko 55/1989 dekretuak, Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duenak, 4., 5. eta 8. artikuluetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko aginduak, Euskadiko Eskola Kontseiluak funtzionatzeko araudia onartzen duenak, xedatutakoaren arabera eta Denon Eskolaren proposamenez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea Cristina Díez Redondo andrea, Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen gurasoen ordezkari dena.

Bigarrena.– Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen gurasoen ordezkari gisa, Carlos López Losada jauna, Cristina Díez Redondo andreari agintaldiz bukatzeko falta zitzaion aldirako.

AZKEN XEDAPENA

Argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu agindu honek ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 30a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.